

Euskadi Literatur Sariak

Irailaren erdi aldera jakinarazi zituzten "Euskadi Literatur Sariak" izeneko hiru irabazleak: Aingeru Epaltzaren "Tigre ehizan", nobela arloan, Bernardo Atxagaren "Xola eta basurdeak" gazteentzako literaturan eta, itzulpengintzan Jose Morales Beldak errusieratik itzulitako "Gure garai heroia".

Epaimahian, Kulturako Sailburu den Mari Karmen Garmendia eta beste lau ordezkari hartu zuten parte: Roman Berriozabal, Karlos Otaegi, Xabier Etxaniz eta Xabier Mendiguren.

Azpimarragarri iruditzen zaigu Aingeru Epaltza iruinearrarena, besteak beste, Naparroako Ikastoletako Federazioaren arduradun ere izendatua izan delako eta, bestetik, nobela arloan bere nobelaz gain, Ramon Saizarbitoriaren "Biotz bi. Gerrako kronikak" sonatua finalista geratu zelako. Ez da, beraz, txantxetako ia izan bere aldeko sariketa. Epaimahikoek esan zuten, "azpimarragarria da kontakizunaren osagarrien lotze eta harilkatze doi eta neurrikoa".

Beste bi modalitateak, gauza berria izan da aurtengo sariketan, Haur eta Gazteen literaturari dagokiona eta itzulpengintzako, alegia. Mahai-koek "Xola eta basurdea"ren alde erabakitzean "irakurtzeko erraza eta, era berean, ipuin hau sakona eta aberatsa dela" baieztatu dute. Itzulpen arloan, gauza bikaintzat jotzen da Jose Morales Beldak errusieratik euskarara itzuli duen Mik-hail Jurievitx Lermontov-en "Gure garai heroia" delakoa. Itzulzailearen curriculum-a azpimarratzen dute berriemai-leek, izan ere, Jose Morales Belda euskaldunberria baita eta gazte denboran, Madrid-a ikastera joan zenean hasi baitzen euskara ikasten. Lau urte daramatza itzulpengintzan. Badu, beraz, meriturik.

Irabazle bakoitzak 1.500.000 pezetako saria jaso du.

Gure zorionik beroenak.

G.E.